

BESTEEN LEKUAN JARTZEN NAIZ NI NEU IZATEN**Hitzik gabeko jokabideak**

Gure ondoan dauden pertsonak batzuetan egoera zailean daude, baina ez dakigu nola lagundu. Laguntza emateko, aldez aurretik errezpetuz entzun eta tratatu behar ditugu, eta, era berean, enpatia garatu eta sustatu egin behar dugu; zer gertatzen zaien hobeto ulertzeko, haien "zapatetan" sartu behar dugu.

Gertakari hau kontatuko zaie ikasleei:

Zure lagun onenaren gurasoak banandu egin dira, eta oso triste eta haserre dago; pentsatzen du errua berea dela eta, horregatik, egoera hori konpontzeko zerbait egin behar duela, baina ez du inork jakitea nahi. Ez daki zer egin, eta esaten zaion edozerekin haserre eta oso harrotuta jartzen da.

Zu konturatu zara bera oso gaizki dagoela. Eta bion amak lagunak dira aspaldian, eta etxean entzun diezu gurasoei lagunaren gurasoak banantzeko prozesuan daudela. Horregatik jabetu zara zergatik dagoen hain gaizki.

Amak zuri esan dizu ez hartzeko kontuan, bolada txar bat pasatzen ari dela eta lagunak elkarri laguntzeko direla; baina, hain "erretxin" izaten ari denez, gelako beste lagunak nazkatzen ari dira.

Lauko taldeetan landuko dute:

- ✓ Pentsatu nola sentitzen ari den.
- ✓ Lagunari zer esan.
- ✓ Gelako gainerako lagunei zer esan.
- ✓ Nola adierazi hobeto horrelako gauzak.

Bukaeran, egindakoa baloratuko da.

- ✓ Asko kostatu zaie laguna nola sentitzen den identifikatzea?
- ✓ Asko kostatu zaie zer esango dioten adostea? Zergatik?
- ✓ Asko kostatu zaie gelan zer esan behar den adostea? Zergatik?
- ✓ Gai hauen inguruan hitz egin behar da? Komenigarria da? Zergatik?
- ✓ Lagunarentzat probetxuzkoa izango da egingo duguna? Zergatik?